

ISRAELGO GOBERNUAREN MENDEKU POLITIKA

Palestinarren aurkako zigor kolektiboaren kronika

Israelgo Gobernuak, nazioarteko legediari muzin eginez, palestinarren aurkako zigor kolektiboari ekin dio azken hilabeteetan. Hildakoak dozenaka eta zaurituak ehunka zenbatzen dira Gaza eta Zisjordanian, su etenerako deien artean.

| AXIER LOPEZ RODRIGUEZ |



SILMAN KHADER (FLASH90)

Ekialdeko Jerusalemen, Shuafat auzoan jazo dira palestinarren eta poliziaren arteko istilu larriak.

EKAINAREN 12AN Belen eta Hebron artean bahitu zituzten Eyal Yifrah (19 urte), Gilad Shaar (16) eta Naftali Fraenkel (16), NBEk legez kanpoko jotzen dituen kolonietako batean erlijioa-

ri buruzko mintegi batetik bueltan zirela. 14 egun beranduago, ekainaren 30ean topatu zituzten hiru gazteen gorpuak Hebron inguruko lurretan. Lehendabiziko momentutik Israelgo Gobernuak Hamas

mugimendu islamiarrari egotzi zion bahiketa, gaur egunera arte probarik aurkeztu ez badu ere. Hamasek adierazpen publiko guztietan ekintza horrekin inolako loturarik ez duela adierazi du.

“Nire anaiaren zaindari”

Hala jarri zion izena Israelgo Gobernuak hiru gazteak aurkitze-ko eta Hamas zigortzeko abiatu zuen operazio militarri. Gazteen gorpuak aurkitu bitarteko bi asteetan Israelgo armadak 600 palestinar baino gehiago atxilotu zituen, Hebron (Palestinako hiririk handiena) militarrez okupatu zuten, hamabi pertsona hil zituen, tartean 10, 13, 16 eta 17 urteko adingabeak, 2.200 etxe baino gehiago miatu zituen Zisjordanian eta beste dozena batzuk suntsitu zituen, zaurituak ehundik gora izan ziren (Belen inguruan kolono batzuek kotxez harrapatu zuten 9 urteko umea). Honi gehitu behar zaio, askoren begietara, munduko kartzelarik handiena den Gazan 35 bonba eraso egin zituztela; biktimarik sortu ez zuten erresistentzia palestinarrik jaurtikitako kohetei erantzunez.

Palestinako herritarren aurkako zigorraren tamaina ikusita, nazioartean ugariak izan dira erasoen aurkako deiak. Ez dira gutxi izan, halaber, ekintza militarrik helburu politikoekin lotu dituztenak ere. Izan ere, bahiketak izan baino bi aste lehenago Al Fatah-k eta Hamasek batasun nazionalerako gobernua berrezartzeko akordioa sinatu zuten. Bahiketak Hamasi leporatuta, indarkeria giroa politikari gailendu zaio eta akordio horretan jasotako pausuak ez dira gauzatu, Israelgo Gobernuaren interesen mesederako.

Mendeku giroa

Gorpuen aurkikuntzak Israelgo gizartea aztoratu zuen. “Mina are-rio krudelari pasa behar zaio. Ramadan bilaka dezagun haien hilabeterik ilunena!”, eskatu zuen Michael Ben-Ari politikari israel-darrak. Etxebizitza Ministro Uri Arielek Hamaseko buruzagien heriotza eskatu zuen eta Gobernuak “kolonia berrien eraikuntza masiboari ekin” beharko litzaiokeela adierazi zuen. Nazioartean ekintza militarrik bertan behera uzteko deiak ugaldtu ziren, tartean Amnesty International erakundearena ere. Israelgo Gobernuak mendeku giroari “babes instituzio-



Tarek Abu Khdeir, erreta hil zuten gaztearen lehengusua. AEBetan bizi da baina oporretan zegoen Jerusalemen istiluak piztu zirenean. Adin txikikoa bada ere, Israelgo poliziak kalean jipoitu zuen atxilotu aurretik. Laguntza medikua ukatu zioten 2 eguneko atxilo-aldian. Haren argazkiek munduari buelta eman diote sare sozialetan.

nala” eman zion bonbardaketa selektibo baten bitartez. Netanyahu hilketaren errudun nagusitzat jo dituen Hamaseko bi kideren familien etxebizitzak bonbaz eraitsi zituen, nazioarteko legedia errespetatu gabe.

Hurrengo egunean, uztailaren 1ean, hiru gazteen hileta ofiziala ospatu zen Jerusalemen. Ekitaldia amaitzean, 200 israeldar inguruk “arabiarrek akabatu” oihu artean hiriko kaleak hartu zituzten. 16 urteko palestinar baten gorpu kiskaliaren irudiekin argitu zuen hurrengo egunak.

Muhammad Hussein Abu Khdeir
Jerusalemgo Shufat auzoko bere etxe aurrean bahitu zuen gaztea.

Ondorengo egunetan egindako autopsiak erakutsi duenez, Abu Khdeir bizirik erre zuten Jerusalem inguruko baso batean. Israelgo poliziak hilketaren honekin lotuta sei kolono atxilotu ditu. Horieta batek haren parte-hartzea onartu du eta gainerako atxilotuak inplikatu ditu. Maan News agentziak zabaldu duenez, gizonezko gazteak dira, horietako batzuk adin gutxikoak. Bei Shemesh eta Adam kolonietako bizilagunak dira.

Kaleko istiluen pizgarria

Mendeku giroaren baitan gertatutako kolonoen oldarraldiek, eta bereziki Jerusalemgo gaztearen hilketak, palestinarren sumina piztu dute. Egunetik egunera pro-

Biktima babesgabeak

Aginte Palestinarraren Informazio Ministerioak argitaratu dituen azken datuen arabera, 2000 eta 2013 urte artean Israelgo armadak adin txikiko palestinar bat hil du hiru egunetik behin. Bigarren Intifada hasi zenetik 18 urte azpiko 6.000 zauritu eta 9.000 atxilotu dituzte, Ministerioko datuen arabera. Datu hauek ulertzeko, Palestinako populazioaren erdia 18 urtez azpikoa dela kontutan hartu behar da.



Palestinarrenganako elkartzarekin mundu osoan hamaika ekimen egin dira, baita Euskal Herrian ere. Bilboko BDS mugimenduak Alde Zaharreko kale batean Zisjordanian oso ohikoak diren Israelgo armadaren *checkpoint* bat irudikatu zuen, palestinarrak egunero sufritzen dituzten gehiegikeriak salatzeko.

testak areagotu egin dira eta Israelgo poliziaren aurkako oldarraldiak ugaritu. Bereziki gogorak izan dira istiluak biktimaren auzoan, Jerusalemgo Shuafaten. Istiluen aurreneko gauean 170 manifestari artatu behar izan zituzten zerbitzu medikuek, Israelgo poliziak eragindako zauriengatik.

Erditzen ez den su-etenerako deiak

Uztailaren 4an, BBC kate ingelesak zabaldu zuen Hamas erakundeak eta Israelgo Gobernuak elkarri ez erasotzeko akordioa lortu zutela. Egiptoko Gobernuaren bitartekaritzari esker, Hamas

kohete bidezko erasoak eteteko prest legoke Israelgo armadak Gazan bonbardaketak bertan

Al-Fatah eta Hamasen arteko batasun nazionalerako akordioa kolokan jarri du Israelgo Gobernuaren ekimen militarrik

behera utziz gero. BBCko iturrien arabera, bi aldeek onartu zuten hau baina errealitatea bake-akor-

Senideek ez dute mendeku politikarik nahi

Gorrito mezu eta elkar aurpegiatzean artean bada hitzari ateak ireki dizkionik. Min gehien jaso dutenen aldetik etorri da, gainera. “Bahiketa eta hilketen aurka nago. Izan judua ala arabiarra. Zeinek onartuko luke haren seme-alaba bahituta ikustea? Bi aldeek odol-huste hau gelditu behar dute”, esan zuen bahitu eta hil zuten gazte palestinarraren aitak. “Hilketa bat hilketa da beti. Edadeak edo nazionalitateak ez dute axola. Ez dago horretako justifikaziorik”, adierazi zuen prentsan hildako hiru kolono gazteetako baten osabak.

dioaren aurkako iritziekin lerratu zen. “Gure eskuak jarri behar ditugu beldurra sustatzen dutenen gainean, Hamasekoek jakin behar dute haiek jomuga direla”, esan zuen Israelgo Gobernuako Atzerriko Aferetako ministro Avigdor Liebermanek su-etenen zurrumurruen egunean. Artikulu hau idazten ari garen egunean, lerroburuek diote Gazan hamar palestinarr gehiago hil dituztela Israelgo bonbek, eta Netanyahu arduraz jokatu behar duela. ■



HARPIDETZA ARDURADUN
LANPOSTUA
argia_n

Bide berriak irekitzera goaz. Kide bat behar dugu, gure proiektuarekin identifikatzen dena, harpidedun eta irakurleekin aurrez aurreko harremanak saretzen aritzeko

Ezaugarri hauek bilatzen ditugu:

- ARGIArekin identifikazioa
- Harremanetarako gaitasuna eta harreman sarea
- Komunikazio ikuspegia
- Iniziatiba
- Kudeaketa gaitasuna
- Esperientzia herri mugimenduetan

Bidali curriculumua uztailaren 11 baino lehen helbide honetara: estitxu@argia.com
Hautatuekin harremanetan jarriko gara.